

# Misioa: Zuzentasuna gauzatu <sup>1</sup>

22. saioa

## ZEHAZPENAK

Jesusen atzetik jarraitu, Jesusen taldeko kide izan,... gure inguruan gaizki dauden gauzak aldatzeko borrokatzea da. Askotarikoak eta ugariak dira bidegabekeriak bizitzako makina bat eremutan. Kristau izanik, guzti horiek salatzea eta, Jesusek egin zuen bezala, egoera horiek aldatzeko gogor jardutea dagokigu.

## SAIOAREN HELBURUAK

Helduak:

- Jainkoaren Erreinua eraikitzeko deiak zer esan nahi duen ulertu
- Munduko edo lekuko egoera bidegabeak antzeman
- Jesusek Jainkoaren Erreinua eraikitzeko egiten digun deia entzun eta geure egin

Haurrak:

- Gure inguruan hainbat gauza ez dagoela ondo aitortu
- Gurasoen eta denok maite gaituen Jainkoaren maitasuna eskertu
- Zein egoera zehatzetan lagun dezakegun ikusi


## GARAPENA

Haur eta heldu elkartuta daudela dinamika garatuko dugu, lagun bakoitzak bere beharrak dituela eta delako behar horiei erantzuteko eskura ditugun bitarteko guztiak erabiltzea bidezkoa dela uler dezaten. Horrela jokatu behar dugu beti, nahiz eta horrek delako pertsona bati denbora edo arreta gehiago eskaintzea badakar ere.

Marrazki bat (saiorako baliabideen karpeta aurkituko duzue) banatuko diegu; familia bakoitzak ondorengo dilema honi erantzun behar dio:

**Hiru fruta-kaxa berdin baditugu eta partidua ikusi nahi duten 3 lagun badaude. Nola banatuko genituzke kaxak denentzat ZUZEN izan dadin?**

<sup>1</sup> Taldeko eragileak saiorko materialen karpeta dgoen *Jesus, Berri Ona da guztiontzat* idazkia irakur dezala. Egokitzen jotzen badu, saio hauetako partaideen artean ere bana daiteke.



Astia emango diegu, aurkeztutako soluzioak marraz ditzaten. Ondoren, marrazki horiek ikusiko ditugu, emandako erantzunen inguruan hausnartzeaz batera. Hona hemen adibide batzuk.

Soluzio hau zuzen da? Egokiena da? Zergatik?

Hasiera batean, soluzio zuzenena aterako da (altuenak ez du kaxarik izango, ertainak kaxa bat eta txikiak bi). Marrazkia zuzen erakutsi eta partaideen iritziak jaso daitezke hainbat konturen inguruan, esate baterako: Zuon ustez, zuzena litzateke bihartik aurrera gelan, denok berdin joateko, betaurrekoak erabiltzea, edo zapatetan barne-zolak jartzea debekatuko lukeen araua indarrean jartzea? Zer gertatuko litzateke?

Hausnarketa egin ondoren, Lukasen Ebanjeliotik hartutako idazki hau entzungo dugu (Saiorako materialen karpetan dago).

*Jesus sufritzen dutenei askatasunaren Berri Ona ematera bidalia izan da (Lk 4, 14-21)*

*Kontalaria:*

*Jesus, Espirituaren indarrez, Galileara itzuli zen, eta inguru hartan guztian zabaldu zen haren berri. Hango sinagogetan irakasten zuen, denek gorai patzen zutela.*

*Nazaretera joan zen, bera hazi zen herrira, eta larunbatean sinagogan sartu zen, ohi zuenez, eta irakurgaia egitera zutitu. Isaías profetaren liburua eman zioten eskura eta, irekitzean, pasarte hau aurkitu zuen:*

*Jesus:*

*Jaunaren espiritua nire ginean dago, berak bainau sagaratu behartsuei berri ona adierazteko; berak nau bidali gatibuei askatasuna eta itsuei ikusmena hots egitera ea zapalduak askatzera, Jaunak onginahia azalduko duen urtea hots egitera.*

*Kontalaria:*

*Liburua itxi, laguntzaileari eman eta eseri egin zen; denak sinagogan begira-begira zeuzkan eta honela hasi zitzaien:*

*Jesus:*

*Gaur bete da profetia hau entzuten didazuenontzat.*

## **JAUNAK ESANA**

Haur eta heldu, bi taldetan banatuko gara, testuaren inguruan hausnartzeko.

### **Helduak:**

Bideo hau ikus daiteke:

<https://www.youtube.com/watch?v=3DOuTRPgQil>

Ondoren, Mateo 6, 31-33 txatala irakurri.

*“Ez kezkatu, bada, zer jango, zer edango, zer jantziko duzuen pentsatuz. Fedegabeak arduratu ohi dira horiez guztiez; baina zeruko zuen Aitak badaki horren guztiaren beharra duzuen. Ardura zaitetze, batez ere, Jainkoaren erregetzaz eta haren nahia betetzeaz, eta beste hori guztia gehigarritzat emango dizue Jainkoak”.*

Ebanjelioko bi txatalak irakurri ondoren, komentatu:

Zer iruditu zaigu? Zer nabarmenduko genuke? Gure inguru gertuko bidegabekeriako egoerak aipatzeko gauza gara? Eta hain hurbil ez ditugunak? Zerbait egin dezakegula pentsatzen dugu, ala “ihes egiten diguten” kontuak direla uste dugu? Profeta gara eta mundu zuzenagoaren alde borrokatzen dogu? Gure inguruko bidegabekeriaren aurkako borrokan laguntzen dugu? Irakasten diegu seme-alabei bidegabekeriak antzematen eta horien aurka borrokatzen?

Idazkiak komentatu eta hausnartu ondoren, itsas izarraren marrazkia banatuko diegu eta bertan bidegabekeriaren aurka borrokatzeko zein konpromiso hartuko duten idatziko dute.

### **Haurrak:**

“Itsas izarrak hondartzan” ipuina irakurriko dugu:

#### **Itsas izarrak hondartzan**

Ilunabarrean, gure adiskidea hutsik zegoen hondartzan zebilen oinez. Eta halako batean, urrutian, gizon bat hurbiltzen ari zitzaiola ikusi zuen. Aurrera egin eta gizonarengana hurbildu ahala, honek, behin eta berrero, makurtu, zerbait hartu eta itsasora botatzen zuela ikusi zuen. Behin eta berriz, indar guztiez jaurtitzen zuen zerbait ozeanora.

Gizon haren ingurura heltzean, mareak itsas-ertzera botatako itsas izarrak hartu eta, banan-banan, uretara itzultzen zituela ikusi zuen gure adiskideak. Harrituta, harengana joan eta agurtzeaz batera, galdetu zion:

- Arratsalde on, adiskide! Zertan ari zara?

- Itsas izarrak ozeanora itzultzen dihardut. Itsasbeherak hondartzan utzi ditu itsas izar guzti hauek. Eta itsasora arin itzultzen ez baditut, hil egingo dira.

- Ulertzen dut –esan zion nire adiskideak-, baina milaka eta milaka itsas izar dago. Larregi dira. Ez zara konturatzen ezinezkoa dela denak itsasora itzultzea? Benetan garrantzitsua deritzozu zure egiteko horri?

Gizonak irribarre egin zuen, beste itsas izar bat hartzera makurtu eta, itsasora jaurtitzen zuen bitartean, zera erantzun zion:

- Honentzat, behintzat, garrantzitsua da!

*Bizitzan, behin baino gehiagotan, aho bete hortz geratzen gara ekintza handien aurrean, gauza ikusgarri eta ezohikoen aurrean. Ekintza txikiek, detaile txikiek, ohiko keinuek, indarra galdu dute gure munduan. Eta hain zuzen ere xumeak, ikusgarritasun gutxi duenak, ia ikusi eta baloratu ere egiten ez denak ematen digu gizatasun gehien eta gure ondoan bizi den pertsona zehatz horrengana hurbiltzen gaitu.*

*Musua, fereka, entzutea, deia, bestearen egoeraz arduratzea, agur berezia, irribarre abegitsua... eta antzeko txinparta txikiek biziz betetzen gaituzte eta jasotzen dituenaren bihotza poztu egiten dute. Ez inoiz ahaztu gauza txikietan, eguneroko gauzetan, baloratzen ez den baina ezinbestekoa dugun horretan ezkututzen den handitasuna.*



Ipuina zer iruditu zaien galdetuko diegu hurrei eta denok batera komentatu egingo dugu:

- Zer gertatu da?
- Zer gustatu zaizu gehien?
- Zer lortzen da izarra berriz itsasora itzultzean?
- Ezagutzen dugu, hurbil ala urrun, arazoak dituen pertsonarik?
- Laguntzen dugu?
- Zer egingo zukeen Jesusek egoera honetan?
- ...

Eragileak, hurrekin elkarrizketan jardunez, hauek azpimarra ditzake:

- Ibiltaria bestea itsasertzean egiten ari denaz arduratzen da
- Ez du aurrera egiten
- Erantzuna, denbora galtzea iruditzen zaio
- Erantzuna aldatu egiten da aurpegia, izena... jartzen diogunean, gauzak zehazten ditugunean...

Izarren itsasoa (murala) egin hurrekin. Izar bana eman moztu, margotu eta muralean ipin dezaten. Haur bakoitzak bere inguruan "salbatzeko, emateko, bizia eskaintzeko" zer egingo duen esango du edo izarrean idatzi.

### **Denok batera:**

Elkartu, hausnartutakoa batera jarri eta helduen izarrek hurrek egindako itsasoari gehituko dizkiogu.

Amaitzeko, Gure Aita errezatuko dugu.

### **ETXEAN – FAMILIAN JARRAITZEKO**

Itsas izarra etxera eramango dugu. Egun hauetan, hurrengo bilerara arte, gauzatzen ditugun egintza onak idatziko ditugu bertan. Hurrengo batzarrera eramango dugu izarra, eta igarotako astean besteen alde egin ditugun gauza on berriak azalduko dizkiogu taldeari.